

Wolfgang Amadeus Mozart (Salzburg, 1756 - Viena, 1791)



[Wolfgang Amadeus Mozart](#) Salzburgen jaio zen 1756ko urtarrilak 27an. Bere aita agudo ohartu zen Wolfgang gaztearen dohainetaz musikarako eta hortaz, bere semea prestatzea eta, aldi berean, tokiz toki erakustea diru-sarrerak lortzearen erabaki zuen (Nannerl –Maria Anna- bere arreba zaharrarekin batera).

Lau urte zituelarik klabikordioa jotzen zuen eta abesti txikiak sortzen zituen. Musika lehen begiratu irakurtzeko kapaza zen, memoria miresgarria zuen eta esaldi musikalak eta zailtasun handiko minuetak inprobisatzeko ahalmen bukaezina zuen. Sei urterekin tekla-tresnen interpretatzaile aditua zen eta baita goi-mailako biolin-jolea ere. Egun adin horrekin eginiko bost piano-pieza txiki jotzen dira oraindik. Hitz batean esanda, ez zen haur

arrunta.

1762. urtean Leopold aitak bere semearen dohainak Europako gorteetan zehar erakustea erabaki zuen eta kontinentean zehar bidaiatu zuten. Wolfgang lehenengo biografoen aburuz bere aitak «*semearen mirarizko jeinua munduarekin partekatu nahi zuen...*»; egun beste zenbaitek diote bere semea esplotatu egin zuela. Egia esan, aitaren irudi larderiatsu eta zapaltzaileak Amadeus gaztearen bizitza osoa markatuko zuen.

Bidai handia (1763-1766)

Lehenik eta behin Munich eta Vienara abiatu ziren eta 1763. urtean Mozartarrek hiru urte eta erdiko bidaiia hasi zuten eta Wolfgang gazteak bizipen paregabeak barneratzeko aukera izan zuen: Mannheimgo orkestra eta estilo ospetsua, Frantziar musika Parisen eta [Johann Christian Bach](#), Johann Sebastian Bachen seme txikiaren estilo dotorea Londresen.

Urte hauetan sonatak idatzi zituen bai piano eta biolinerako (1763) eta sinfonia bat (K. 16, 1764).

Bere lehen operak (1766-1769)

Salzburgen bueltan, musika idazten jarraitu zuen eta bere lehen obren artean oratorio baten lehen zatia, *Die Schuldigkeit des ersten Gebots* (Lehenengo Aginduaren beharra), opera komikoa *La finta semplice* eta *Bastien und Bastienne*, bere lehen singspiel-a (Zartzuelaren baliokidea Alemanian) agertzen zaizkigu. 1769. urtean, 13 urterekin, bere hiriko artzapezpikutzako *Konzertmeister* (kontzertu-maisua) postua ematen diote, musikagilearentzat

ohore handia suposatzen zuena... baina haatik inolako diru-ordainik ez zekarrena.

Italia (1769-1770)

Etxean urte batzuk egon eta gero, aita-semea Italiarantz abiatu ziren (1769-71), Leopoldek uste bai zuen bere semea ospetsu bilakatuko zela operak idazten.

Milanen Mozartek G.B. Sammartini musikagilea ezagutu zuen.

Batikanoan Wolfgang Amadeusek [Gregorio Allegriren Miserere](#) lana entzun zuen. Aipatu lana sekretua zen Kapera Sixtinan bakarrik jotzerik bai zegoen eta bere argitalpena debekaturik zegoelako eskumiku zigorra ezartzeko mehatxupear. Halere, ostatura iritsi bezain laster Mozart gazteak jatorrizko lan osoaren oso antzeko bertsioa idatzi zuen buruz. [Klemente XIV](#) aita santuak, liluratuta 14 urteko gazte horren jeinua ikusirik, zigorrik ez ipintzeaz gain Urrezko Ezproiaren Ordenako Zalduna izendatu zuen. Tituluak pribilegioak suposatu arren, ez zuen inoiz Mozarten interesa merezi izan.

Bolonian Giovanni Martin apaiza ezagutu zuen eta Accademia Filarmonica famatuaren sarrera-azterketak erraz gaintu zituen. 1770. urtean bere lehenengo opera handia izango zena idaztea agindu zioten, *Mitridate, re di Ponto* (1770), Milanen idatziko zuena. Obra honekin bere ospea musikagile gisa asko handitu zen. 1771n Salzburgera itzuli zen.

Borroka-urteak (1772-1779)

1772. urtean aita-semea Italiara itzuli ziren. Milanen opera bat estreinatu eta [Exsultate-jubilate](#) motete paregabea idatzi zuen. Lanpostu duin eta egonkorra bilatzen zuen baina alferrik. Salzburgen berriro, 17 urterekin ez zuen "haur jeinu" gisa jarraitzerik. Borrokatu beharko zuen bere bizitza ateratzearren.

Ondorengo urteetan bere lehenengo hari-kuartetoak, [K.183](#), [K.199](#) eta [K.200](#) sinfoniak (1773), K. 191 fagoterako kontzertua (1774), *La finta giardiniera* (*Lorezain faltsua*) eta *Il re pastore* (1775), biolinerako kontzertuak eta lehenengo sonatak pianorako (1774-75) idatziko zituen.

1777. urtean Munichera joan zen bere ama Anna Mariarekin. Hogeita bat urterekin, Salzburgen Colloredo artzapezpikuaren esanetara zuen lanpostua baino hobea bilatzen zuen Europako gorteetan baina alferrik berriro ere. Mannheimera iritsi zen, garai hartako Europako musikaren hiriburua, orkestran postu bat lortzeko helburuarekin eta bertan Aloysia Weberrekin maitemindu zen.

Mannheimen bertako musikagile talde batekin adiskidetu zen (Mannheim, lehenengo aldiz historian zehar, ospetsua zen bere orkestrengatik, zati leun eta indartsuen arteko ezberdintasuna asko nabarmentzen zuen, Mannheim estiloa bezala ezagutuko zena eta Erromantizismoaren ezaugarririk handiena bilakatuko zena).

Geroago Leopoldek bere seme eta emaztea Parisera bidali zituen eta bertan Wolfgangek [K. 297 sinfonia](#) eta "*Les petits riens*" (Huskeri Nimiñoak) baleta estreinatu zituen. Amaren heriotza Frantziako hiriburuan 1778. urtean, Aloysa Weberren ezezkoa Mozartek familiari egindako bigarren bisitan eta bere nagusi ziren aristokraten mesprezuek bere bizitzarik unerik latzenetakoa bilakatuko zuten Pariseko bere egonaldia 1779. urtean Salzburgera itzuli zen arte.

Zapalkuntza eta askatasuna (1780-1781)

Ondorengo urteetan Mozartek mezak ([Koroatze-Meza \(KV 317\)](#)), K.318, [319](#) eta [338](#) sinfoniak eta [Idomeneo, re di Creta](#) opera idatzi zituen (Munich, 1781), bere lehen opera handia, Glucken eragin nabarmenarekin baina Mozarten erabateko kutsuarekin halaber.

Augsburgon zegoela Colloredok deitu zion. Bere azken arrakastak eta Europako nobleekin maila berdinean harremanak izan eta gero, artzapezpikuaren tratua iraingarria zen Mozartentzat. Musikagilea ospetsua zen Europa osoan zehar baina Colloredok Mozart gutxiestea gustuko zuen, morroia balitz bezala. Azkenean Mozartek aurka egin zion eztabaida garratz baten ostean eta lana utzi zuen. Honela, ia etengabeko eztabaida eta liskarrean eginiko hamar urteen (1711-1781) amaiera etorri zen.

Ezkontza, hala eta guztiz ere (1781-1784)

Salzburgeko Printze-artzapezpikuarekin bukatu eta gero Mozart Vienara joan zen bizitzera eta urte zoriontsua biziko zuen kontzertuetan parte hartzen, klaseak ematen eta musika idazten. 1782. urtean beste opera arrakastatsu bat etorriko zen, [Die Entführung aus dem Serail \(Bahiketa harenean\)](#) singspiel-a, Joseph II. enperadoreak aginduta.

Urte hartan, eta Gottfried Van Swieten baroiari esker –musikazale amorratua eta musikagile barroko askoren lanen bilduma baten jabe-, [Georg Friedrich Haendel](#) musikagile famatuaren oratorioak eta [Johann Sebastian Bach](#)-en zenbait lan, [Ongi Tenperatutako Klabea](#) tartean, ezagutuko zituen. Mozartek bien konposizio-teknikak barneratu eta bereganatu zituen bere estiloarekin uztartuz eta garai hartako lan guztiei kontrapuntu-kutsu bat emanez. Aipatu kutsua ageri da *Ongi Tenperatutako Klabea* laneko zenbait fugen egindako transkripzioetan (KV 405, KV 394, KV 401) eta KV 426 pianorako fugetan (gero [KV 546](#) katalogoarekin harirako transkribatuko zuena) baina Händel eta Johann Sebastian Bachen eragina [KV 427 Do minorreko Mezan](#) azaltzen da batez ere.

Urte horretan Constanze Weberrekin, Aloysiaren ahizpa, ezkondu zen eta hortik aurrera zor handiekin bizi ziren Mozarten heriotzara arte.

Musikagilerik handiena (1784-1790)

Gai horretan [F.J. Haydn](#)-ekin adiskidetu zen eta sei kuarteto eskaini zitzaizkion (1782-85). Kondairak dioenez Haydnek kuartetoak entzun eta gero Leopold Mozarti aitortu zion, Jaunaren aurrean, Wolfgang Amadeus zela inoiz egondako musikagilerik handiena. Aro sortzaile handia izan zen Mozartentzat. 1785-86 urteetan gailurrean zegoen. [Haffner sinfonia](#) estreinatu zuen (K.385, 1785) eta

baita bere garaiko musika baino askoz ere haratago zihoan musika ere. Lorenzo da Ponteren etorrera Vienara libretista bikaina izateko aukera eskaini zion bere opera handienentzat: [Le nozze di Figaro](#) (1786), [Don Giovanni](#) (1787) eta [Cosi fan tutte](#) (1790). Urte horretan Gluck hil eta Joseph II. enperadoreak Mozarti eman zion *kapellmeister* kargua baina soldata txikiagorekin eta, horrenbestez, ezin izan zituen zorra guztiak kitatu. Krisi horiek zenbait lanetan ageri dira : [K. 516 hari-kuartetoa](#), azken hiru sinfoniak ([K.543](#), [550](#) eta [551](#), [Jupiter](#), 1788an), azken pianorako kontzertuetan eta abar, guztiek ere ekarpen handiak musika-mota hauetan.

Zoritxarreko bizitza baten amaiera

Bere azken urteetan Mozartek azkeneko operak idatziko zituen [Die Zauberflöte \(Flauta magikoa\)](#) eta [La Clemenza di Tito](#) (1791), azken hau Leopold II.aren koroatzerako idatzita. Flauta magikoan lanean ari zela Franz Walsegg konde misterioitsuaren ordezkari batek Requiem bat idaztea agindu zion. Kondearen emaztea hil berria zen eta kondeak Mozartek hileta-musika idaztea nahi zuen baina jendearen aurrean lana berea balitz bezala agertzea nahi zuen ere eta, horrexegatik, anonimatuari jarraitu behar izan zuen. [Requiema Re minorrean K. 626](#), amaigabea, bere azken lana izan zen eta bere jarraitzaile zen [F.X. Süßmayrrek](#) *bukatu zuen*.

1791ko abenduaren 5ean, 35 urte zituelarik, Vienan hil zen, haurra ospetsu bihurtzen eta gizona hiltzen ikusi zuen hirian. Azken ikerketen arabera Mozart erreuma-sukar baten ondorioz hil zen. Oker batengatik hobi komun batean lurperatu zuten, hilarririk gabe, eta ez dute inoiz aurkitu.

Kondaira

Mozart [Antonio Salierik](#) pozonduta hil zelaren zurrumurrua zabaldu zen Vienan, Salierik Mozarten jeinua gorroto omen zuelako.

1790. urtean, bere ospearen gailurrean, Mozartek Salieri salatu zuen, gainbeherako bidean zegoen musikaria, plagioa egiteagatik eta bere bizitzaren aurka aritzeagatik. Alexander Wheelock Thayer historialariak dio Mozarten susmoak hamar urte lehenago izandako pasadizoan hasi zirela, Salierik Mozarti Württemberg Printzesaren musika-irakasle postua kendu zionean. Hurrengo urtean Mozartek ez zuen lortuko ezta printzesaren piano-irakasle postua.

Le Nozze de Figaro operak bai entzuleriarengandik baita enperadorearengandik kritika txarrak jaso zituenean Mozartek Salieri salatu zuen estreinaldiaren aurka boikota egiteagatik. Baina azken hau Frantzian zegoen *Les Horaces* bere operaren ikusgarriak egiten, hortaz ez dugu uste hain urrutitik Mozarten operaren arrakasta edo porrota erabakitzeke ahalmena izan zuenik.

Baina litekeena da (beti Thayerren teoria jarraituz), Salierin aurka Mozart jarri zuena Giovanni Battista Casti izatea, gortearen poeta eta Figaroko libretoaren egilea zen Lorenzo da Ponteren aurkaria. Salieri eta Mozarten arteko liskarra muntai artifiziala izan zelaren adierazle da ondorengoa: 1788. urtean, *Kapellmeister* izendatu zutenean, Salierik *Le Nozze de Figaro* opera aukeratu zuen bere operaren bat aukeratu beharrean. Salieriren ikasleen artean Mozarten seme bat egon zen ere.

Bere bizitzaren amaieran Salieriren osasunak okerrera egin zuen. Itsu gelditu eta bere azken urteak ospitalean eman zituen. Urte horietan Salierik Mozarten heriotzaren errudun zela aitortu zuen, edo horrela diote behintzat bere erizainetako bik.

Mozart mendebaldeko musikaren historiak emandako musikagilerik handiena da dudarik gabe eta bere eragina izugarria izan da bai mundu germanikoan baita latinoan ere; bere lan anitza (lieder-etatik hasita kontzertu, sinfonia eta operetara) maisu-lanez beterik dago. Goethek musikagile austriarrari buruz egindako gogoeta azpimarratu nahiko genuke: "*Ba al dago gure miresmena eta harridura sortzen duten gizon bakanengan aurkitzen ditugun mirariak baino Jainkotasunaren adierazle handiagorik?*"

Bere lanak

Ludwig von Köchelek Mozarten lana katalogatu zuen 1832. urtean. Guztira 626 lan dira.

Lan sinfoniko eta instrumentalak:

- 41 sinfonia, eta horien artean aipagarrienak: 35, *Haffner* (1782), [36, Linz](#) (1783), [38, Praga](#) (1786) eta azken hiruak (39, mi bemolean, 40 sol minorrean eta 41, *Júpiter*) 1788. Urtean idatzitakoak.
- Kontzertuak (27 pianorako, 5 biolinerako eta beste zenbait musika-tresna ezberdinetarako)
- Sonata, ezinbestekoak Mozarten musikaren barruan;
- Ganbera-musika (duoak, trioak, kuartetoak eta kintetoak)
- 61 dibertimendu,
- Serenatak,
- Martxak eta
- 22 opera.

Lehenengo **operak** txikiak izan ziren baina 1781etik aurrera bere lanik ospetsuenak etorri ziren:

- *Idomeneo Kretan* (1781);
- *Bahiketa Harenean* (1782), Alemaneran egindako lehen opera komikoa
- *Le Nozze de Fígaro* (1786),
- *Don Giovanni* (1787) y
- *Cosí fan tutte* ('Halakoxeak dira guztiak', 1790), italieraz idatzita Lorenzo da Ponteren libretoarekin;
- *Flauta magikoa* (1791), masoien baloreak agertzen duena, eta
- *La Clemenza de Tito* (1791).

Idatzitako **eliza-musika** Salzburgen emandako urteei dagokie eta, orokorrean, Koroatze-Meza KV. 317 bezalako mezak, eliza-sonata eta beste zenbait

lanetaz osatuta dago. Vienan eliza-musikako lan gutxi egingo zituen, baina hauek sekulako lan handiak dira, bere musikaren heldutasunaren adierazle garbiak: *Meza do minorrean* (KV 427), amaitu gabekoa, [*Ave Verum Corpus KV 618*](#) motetea eta *Requiema re minorrean*, KV 626.

Abesbatza-musika eta koral profanoak idatzi zituen ere, horietako zenbait nahiko lizun eta limuriak: *Leck mich im Arsch* (Ipurdia miazka nazazu), KV 231 eta *Leck mich im Arsch fein recht schön sauber* (Ipurdia miazka nazazu distiratsu utzi arte, kabroi hori), KV 233.